

CREATION

> "Harilka, du fil à la pâte" <

AVEC "HARILKA, DU FIL À LA PÂTE", KOLDO AMESTOY VEUT MÉLER À L'ART DE LA PAROLE PLUSIEURS DISCIPLINES ARTISTIQUES. LE SPECTACLE ASSOCIERA L'ART DU CONTE, CELUI DU MUSICIEN, DU TISSERAND, DU PARFUMEUR, DE L'ILLUSTREUR ET DU CHOCOLATIER POUR UN PARCOURS DE CONTES ET DE LÉGENDES MAYAS, AZTÈQUES ET BASQUES.

Un voyage qui mènera le spectateur d'un continent à l'autre, d'un bout à l'autre du fil en compagnie de cinq complices : le toucher, l'ouïe, la vue, l'odorat et le goût.

Le spectacle sera joué en deux versions : **en basque le 13 avril et en français le 14 avril** au théâtre de Bayonne, à 21h.

Coproduction association Darlola, Institut culturel basque et aide à la résidence de la scène nationale Bayonne - Sud-Aquitain.

Ipuingintza aipatu orduko, berehala Koldo Amestoy gogora datorkigu. Alabaina, 1983an hasirik, Euskal Herri osoko xoko-moko guziak kurrituak baititu, baita Frantzia barna eta Ameriketara gaindi baitabila.

"Harilka" ikusgarriarekin sorkuntzari irekitzen dio atea, ofizio desberdinetako artistei eskua luzatuz eta horrela ipuinek "gustu" berezia ukanen dute... Dudarik ez, zerbait arrado izanen dela !

LITERATURA

> Martxoa : euskal idazleen hilabetea ! <

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAK PARADA EZINAGO HOBEAK ESKAINTZEN DITU IDAZLEEN ENTZUTEN ETA HAIEN HOBEKI EZAGUTZEKO !

"**Irakur truka**" egunaren bidez, hiru ikastolako 65 haurren aitzinean mintzatu ziren Antton Kazabon, Iñaki Zubeldia, Daniel Landart, Aingeru Epalza, Juan Kruz Igerabide eta Pantxoa Etchegoien (itzultzailea).

"**Hitzak mintzo**" saileko hiru hizlari idazleak dira : Andoni Egaña, Kirmen Uribe eta Lucien Etchezarreta. Azken honek bereziki joan den mende Erdiko iparraldeko idazleak argitan ezarriko ditu. Kirmen Uribe bizkaitar poetaren liburua (euskaraz/frantsesez) Bègleseko argitaletxe batek plazaratu du eta Bordelen aurkeztuko dute.

Juan Kruz Igerabidek idatzi "**Hosto gorri, hosto berde**" haiku liburuaren inguruan, Biarritzeko Fal kolegioan hiru saio antolatuko dira.

Jon Arretxe, hogeit bat liburuen idazleak, bere obra orokori aurkeztuko du Hazparneko mediatekan. Piarres Xarriton, ikerle eta idazlea, sekulako memoriaren jabea, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean mintzatu da eta bazko astelehenez Saran omendua izanen da.

BLOG INTERNET

> Penser la culture basque de demain sur gogoetan.com <

L'INSTITUT CULTUREL BASQUE INITIE UNE RÉFLEXION COLLECTIVE SUR L'AVENIR DE LA CULTURE BASQUE AU TRAVERS DE SON NOUVEAU BLOG INTERNET.

A la demande du conseil de développement et du conseil des élus, l'Institut culturel basque est amené pour mai 2006 à faire part de ses réflexions afin de décliner des actions concrètes en faveur du développement de la culture basque à l'horizon 2020.

L'ICB a décidé de rendre publique cette réflexion en encourageant la participation de tout un chacun. Dans ce but, en complément des médias traditionnels (contributions papier, courriels...), un blog (journal internet) sera mis en ligne sur le site portail www.eke.org dès le 18 mars 2006 afin de permettre aux acteurs culturels et associatifs d'apporter leurs témoignages et leurs avis en réagissant sur les thèmes de discussion choisis.

Rendez-vous sur <http://www.gogoetan.com>

ANIMAZIOA

> Hitzaditza <

BATEKMILA PROGRAMAREN BARNEAN, EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAK DIKTAKETA IDATZI BAT ANTOLATZEN DU, 2006KO MAITZAREN 6AN, BAIONAKO FAKULTATEAN, GOIZEKO 9AK ETA ERDIETAN, AEK-REN PARTAIDETZAREKIN.

Helburua da euskararen irakurmenaren eta idazmenaren inguruan diren betiko ideia ezkorren haustea ("zaila da", "ez dakit euskaraz idazten", "euskal liburuak ez ditugu aise irakurtzen"...), eta jendearen baitan literaturaren aldeko maitasuna sustatzea.

Bi idazle galdegina izan zaie testu berriak sortzea, gai librean eta horiek baliatuak izanen dira diktaketarentzat. Ariketaren ondotik idazleak parte hartzaileekin mintzatu dira gaurko euskal literaturaz.

Hitzaditza euskara ikasten ari direnei, euskaraz idazteko eta irakurtzeko lotsa direnei, hots edozein euskaldunei irekia da. Bi maila proposatuak dira. Diktaketaren zuzenketak egin ondoren, sariak (harpidetzak, DVD eta CD Romak, liburuak besteak beste) banatuko dira.

Parte hartzeko, izena eman Euskal kultur erakundeari 05 59 93 25 25 edo AEK zentroari : 05 59 25 76 09), **apirilaren 20ko**. Xehetasun gehiago EKeren web gunean :

<http://www.eke.org>



"Libertimenduak 2006" Donibane-Garazin



Visite guidée de St-Jean-de-Luz en euskara, avec Gaxuxa Elhorga

gogoetan.com
Penser la culture basque de demain



Juan-Kruz Igerabide idazlea Biarritzeko Fal kolegioan

Dans le cadre de son programme Batekmila, l'Institut culturel basque a absolument voulu toucher le monde scolaire. Aussi, a-t-il lancé l'opération "Bat biga hiru" qui consiste à proposer aux élèves 3 exercices d'écriture, d'illustration et de mémorisation⁽¹⁾. Il ne s'agit pas d'un concours mais d'une incitation à écrire et lire en basque.

>Elèves des trois filières<

Initié durant l'année scolaire 2004-05 avec les écoles publiques de Sare et d'Irissarry, ce projet a connu un franc succès auprès des enseignants et des élèves. L'Institut culturel basque a décidé de l'étendre, en 2005-06, aux 3 filières d'enseignement. Les conseillers pédagogiques, d'accord sur le principe, ont activement participé à la préparation de cette opération. Au total, **512 élèves** ont pris part à l'activité : 217 élèves des ikastolas, 134 élèves des écoles publiques et 161 élèves des écoles privées. Parallèlement, l'Institut culturel basque a demandé à Philippe Albor de mettre en musique plusieurs fables, lequel a choisi le groupe Haurrock pour les interpréter. Un premier enregistrement sur CD -document de travail- a été envoyé aux enseignants. Il leur servira de base pour l'apprentissage des chants.

>Rencontre à Louhossoa<

Le point culminant de cette opération aura lieu **les samedi 25 et dimanche 26 mars⁽²⁾** à la salle de spectacle de Louhossoa. Une exposition réunissant les 512 travaux sera présentée sur la grande scène où se dérouleront également les animations. Les principaux acteurs étant, bien entendu, les enfants eux-mêmes qui chanteront, déclameront ou joueront les fables de La Fontaine adaptées en basque par Oxobi, Léon Léon et Daniel Landart. L'Institut culturel basque vous invite à venir les découvrir et à encourager ces enfants qui ont mis du cœur à l'ouvrage. De plus, signalons qu'à partir des textes écrits et déclamés par les enfants, un magazine sera réalisé par France 3 Euskal Herri, ainsi que des émissions radiophoniques. Quant au CD avec les fables chantées, il verra le jour cette année.

⁽¹⁾ Choisir un mot (puis expliquer la raison de ce choix en 10 lignes et illustrer le texte); choisir deux dictons et les calligraphier le mieux possible; choisir trois fables, les recopier et les mémoriser.

⁽²⁾ Exposition ouverte les deux jours de 14h30 à 18h.



a obtenu le patronage de



>ETABLISSEMENTS SCOLAIRES AYANT PARTICIPÉ À "BAT BIGA HIRU"<

- > **IKASTOLAS DE :** Hasparren, Hendaye, Mauléon, Ossès, Saint-Jean-de-Luz, Saint-Palais et Saint-Pée-sur-Nivelle.
- > **ÉCOLES PUBLIQUES DE :** Aïnhoa, Bayonne (Jean-Moulin), Bidarray, Larressore, Mendionde, Menditte, Ordiarp, Saint-Pée-sur-Nivelle et Tardets.
- > **ÉCOLES PRIVÉES DE** Briscous, Cambo, Ciboure, Espelette, Halsou, Hasparren (collège Ursuia), Itxassou, Mouguerre, Saint-Palais, Saint-Pée-sur-Nivelle et Ustaritz.



Irakaskuntzako hiru saretako 26 eskolek parte hartu dute Batekmila egitasmoaren barnean sartzen den Bat biga hiru sailean. Orotara 512 hurrek. Erran dezakegu ekintza arrakastatsua izan dela. Proiektuak, haste hastetik pedagogia aholkularien onarpena ukana zuen eta zazpi egin ahalak egin dituzte hurrek nasaiki parte har dezaten.

Haur bakoitzak hautatu du gustukoa zuen hitza eta hamar bat lerrotan erran zendako, ondotik marrazkia eginez; idatzi ditu ere ahal bezain poliki bi erran-zahar eta hiru alegia. Eta entseatu da alegien gogoz ikasten.

>Erakusketa eta animazioak Luhuson<

Hurrek egin lan guziak biduko dituen erakusketa handi bat apailatuko du Euskal kultur erakundeak bi egunez segidan Luhuson ikusten ahalko dena : martxoaren 25 eta 26an. Erakusketarekin batera, animazioak ere izanen dira, hurrek berek eginen dituztenak edo kantuen bidez edo alegiak komedia gisa emanaz.

Alegiak kantatuko dituzte, hain xuxen, haurrak lanean ari zirelarik, Philippe Albor musikaria ere ez baita geldirik egona ! Euskal kultur erakundeak galdegini, bost alegia musikatu ditu eta eskoletara igorriak izan dira, hurrek ikas ditzaten. Funtsean, alegia kantatu horiekin eta beste zenbaitekin disko bat agertuko da udako oporrak aitzin.

Anartean, denak gomit zarete Luhosora haur horiek zertaz gai diren ikusteko eta preziatzeko !

Hona, adibide gisa, hurrek hautatu hitzak

"MENDIA - Nik mendia maite dut ainitz animale ikusten ahal baitugu. Nik mendia maite dut ikuspegiak ederrak direlaketz arbolekin eta errekarrekin. Nik mendia neguan maite dut ere zeren eskiatzen ahal dugu. Nik mendia udazkenean maite dut oihanetako onjoen atxemaiteko. Nik mendia udan maite dut lore ainitz sortzen baitira : horiak, ubelak, xuriak, arrosak, erreka bazterrean, sasiatan, lepoetan, kaskoetan. Nik mendia maite dut zeren eta piknikatzen ahal dugu."

Gilén Daubriac - Jondoni
Bixintxo eskola - Uztaritze

"EUSKAL DANTZA" - Senperen euskal dantza egiten dut lagunekin. Biziki gustatzen zait "josta josta mailua" eta zazpi jauziak dantzatzea. Musikariak ditugu : txistua, trikititxa eta ttunttuna. Erabiltzen ditugun jantziak biziki maite ditut : arropa xuria, buruan lorezko koroa".

Jeanne Cazalet - Eskola publikoa - Senpere

"ZUHAITZA" - Maite dut zuhaitza handia baita. Ainitz mota badira eta kolore desberdinetakoak dira : berdea, marroina eta gorria. Zuhaitzak biziki baliosak dira. Horiei esker bizi gira. Eraikuntzetan ere beharrezkoak dira. Bestalde, zuhaitzek natura betetzen eta edertzen dute. Loreak, fruituak eta zuhaitz tikiak emaiten dituzte eta oihanak sortzen. Bero denean, haren itzalpean goxo egiten du eta gogotik freskatzen gira. Zuhaitzak bizi dira eta bizi emaiten dute. Xoriek beren ohanzteak eta urtxintzek beren etxeak zuhaitzetan ongi aterbetzen dituzte."

Andoni Lavigne - Ezkia ikastola - Hazparne

